

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

18-3-28 24. ALEA

Biktima guztien
aitortza

2. ORR. ►►

2018ko aurrekontuak
onartuta

4. ORR. ►►

Atxulondo jatetxeak
kudeatzaile berria

6. ORR. ►►

Euskarak
beheranzko
joera herrian

8. ORR. ►►

KRONIKA



Biktima guztien **memoria** jasoko duen herriaren alde

“Memoria sustraieetatik kimuetara” ekitaldia egin zen martxoaren 3an P. M. Otaño plazan landatu berri den Gernikako haritzaren alboan.



Ez zen ekitaldi handia izan baina malko ugari ikusi zen bertaratuen begietan. Zizurkilgo Udalak eta Hernandorena kultur elkarteak, lehen aldiz Zizurkilen, indarkeria ezberdi-

nen biktimak batu zituzten P.M. Otaño plazan egindako ekitaldi xume eta goxoan. “...Jarrai dezan zut haitzak, jarrai dezan zut memoriak, erein, erein...” zioen Leire Zubeldia herritarrek

«Errazago begiratu diogu gertuko sufrimenduari urruneko jotzen genuenari baino»

ekitaldia hasteko idatzi zuen poema hunkigarriak. Eta horixe izan zen ekitaldiaren helburua, aitortza egin eta aurrera begirako memoria ereitea. Poesiaren ondoren, Joxin Azkue Hernandoren taldeko kideak Gernikako haritzak euskaldunontzat duen esanahia azaldu zuen, Zizurkilen landatu den haritza egun Gernikan dagoenaren anaia dela zehaztuz. On-

doren Unai Mendizabal bertso-lari zizurkildarrak gogoetarako bi bertso utzi zituen, zuhaitzari eta Euskal Herriari erreferentzia eginez, “kimu berriak negarez ditu/ta sustraiak odole-tan” amaitu zuen lehenengoa. Jarraian heldu zen Zizurkilgo Udalaren adierazpena.

Biktima guztien aitortza

Eva Usandizaga giza eskubi-deetarako zinegotziak irakurri zuen Udal gobernuaren idatztzia. “Bizi izan ez dugunok ezin dugu irudikatu indarkeriaz gertuko bat galtzeak zer esan nahi duen”, hasi zen Usandizaga, Zizurkilen ere indarkeriak bere lorratza utzi duela azpimarratuz. “Gernikako haritzaren alboan nola ez gogoratu 36ko estatu

Un pueblo con memoria, para construir el futuro

El 3 de marzo se realizó un emotivo acto en reconocimiento a las víctimas de la violencia en Zizurkil en los últimos años. El Ayuntamiento de Zizurkil y la asociación cultural Hernandorena reunieron por primera vez a víctimas de diversas violencias en un acto sencillo junto al recién plantado roble de Gernika. Frente a ellas, el Ayuntamiento leyó una decla-

ración de reconocimiento y de autocrítica.

Reconocimiento a todas las víctimas

La concejala de Derechos Humanos, Eva Usandizaga, fue la que puso voz al manifiesto del Gobierno local. “Las personas que no lo hemos vivido, no podemos hacernos una idea de lo que supone perder a alguien

cercano a causa de la violencia”, aseguró, remarcando que la violencia ha dejado su huella también en Zizurkil. “Al lado del roble de Gernika, cómo no acordarnos de los zizurkildarras muertos por el golpe de estado del 36. Y en fechas más recientes, también nos acordamos de nuestro vecino Julian Galarza, asesinado por ETA en los años de la época llamada la transi-

ción, y de los dos vecinos asesinados por la violencia policial en décadas posteriores, víctimas todavía no reconocidas. Sin duda, el mapa del sufrimiento es tan diverso como duro”.

A continuación, Usandizaga realizó una autocrítica en nombre del Ayuntamiento. “Desde el Ayuntamiento de Zizurkil, queremos aprovechar este acto para deciros que es-

«Udal bezala argi utzi nahi dugu guztiok aitortzen zaituztegu- la. Guztiok duzuela egia eta justiziarako eskubidea»

kolpe faxistak hildako zizurkil-darrez. Eta gertuago etorrita trantsizioa deitu zitzaion garaian ETAk hildako Julian Galarza herritarra gogoan dugu, edo hurrengo hamarkadetan polizia indarkeriak erahil eta oraindik aitortzarik ez duten bi herritarrek. Zalantzarik gabe, sufrimenduaren mapa anitza bezain gordina da”.

Ondoren, autokritika egin zuen Udalaren izenean. “Zizurkilgo Udaletik, gaurko ekitaldi hau baliatu nahi genuke zuen ondoan gaudela esateko. Eta

bai, guri ere autokritika egitea dagokigu, ohartzen baikara sufrimenduaren tamainako erantzunik ez dugula eman sarritan. Guztiok errazago begiratu diogu gertuko sufrimenduari urruneko jotzen genuenari baino. 2015ean udalbatzak Galarza aitortzeko onartu zuen idatziak dioen bezala, barkamenak eskatzen dizkizuegu guztioi inoiz ahaztuak edo baztertuak sentitu bazarete eta elkarlana eskaintzen dizuegu aitortza, egia eta justizia lortzeko bidean. Ez dugu alderaketarik egin nahi, ez dugu ekidistantziatik hitz egin nahi, indarkeria bakoitzak izan ditu bere ezaugarriak, baina Udal bezala argi utzi nahi dugu guztiok aitortzen zaituztegu. Guztiok duzuela egia eta justiziarako eskubidea. Zizurkilgo

Udala ondoan duzue, eta izango duzue. Ekitaldi honetan konpromiso hori hartzen dugu”.

Egia osoa

Gertatuaren egia osoa bistaratzeko beharra azpimarratu zuen Zizurkilgo Udalak, 8 biktimak banan bana zerrendatuz. “Guk ez diogu beldurrik egia osoari. Frankismoak fusilatu eta isildu zituztenena, ETaren biktimena eta polizia zein estatuak eragindako biktimena. Egia horretan oinarritua, bakoitzak bere baitara zintzo begiratzuz soilik egingo dugu aurrera. Errelatoa ez bada osoa, ez bada benetakoa, ezingo dugu sendo

aurrera egin”. Ondoren, memoria elkarbanatu hori irudikatu eta memoriadun herria aldarrikatzeko, P. M. Otaño plazara hurbildutako biktima ezberdinek haritzari lur pixka bat bota zioten eta biktima guztientzat egia, justizia eta erreparazioa eskatzen duen Udalaren oroi-garri bat jaso zuten, hunkituta. Ekitaldia amaituta, orain gutxi arte pentsaezinak ziren argazkiak ikusi ahal izan ziren. Finean, elkarbizitzan aurrera urratsa eman zen martxoaren 3an.

tamos a vuestro lado. Y sí, nos toca hacer autocritica, porque nos damos cuenta de que a menudo no hemos dado una respuesta acorde al sufrimiento. Ha sido más fácil para todos reconocer el sufrimiento cercano que aquel que nos ha parecido más lejano. Tal y como está recogido en el escrito aprobado por el pleno municipal en 2015 en reconocimiento a Galarza, os pedimos perdón a todos y a

todos, si os habéis sentido olvidados o excluidos, y os ofrecemos nuestra colaboración en el camino para la consecución del reconocimiento, la verdad y la justicia. No queremos hacer comparaciones, no queremos hablar desde la equidistancia, cada violencia ha tenido sus características, pero como Ayuntamiento queremos dejar claro que reconocemos a todas las víctimas. Reconocemos que to-

dos tenéis derecho a la verdad y a la justicia. Tenéis a vuestro lado al Ayuntamiento de Zizurkil, y lo seguiréis teniendo. Adoptamos ese compromiso en este acto”.

Toda la verdad

El Ayuntamiento de Zizurkil remarcó la necesidad de visualizar toda la verdad de lo sucedido. Después, para simbolizar esa memoria compartida y para

proclamar un pueblo con memoria, los familiares de las víctimas reunidas en la plaza P.M. Otaño vertieron un poco de tierra sobre el roble, y recibieron emocionados un presente del Ayuntamiento que solicita verdad, justicia y reparación para todas ellas. Un acto sencillo, para seguir avanzando en la convivencia.

Inbertsio **ahalmena** urtez urte berreskuratzen

Zizurkilgo Udalak ahalegin handia egin du azken bi legealditan zorra murrizten eta aurrekontuetan sumatzen da pixkanaka egoeraren hobekuntza. 2018koak onartu berri dira.

4


Zizurkilgo Udalak ahalegin handia egin du azken bi legealditan zorra murrizten eta aurrekontuetan sumatzen da pixkanaka egoeraren hobekuntza. 2018koak onartu berri dira.

3.315.850€ ko aurrekontua izango du Zizurkilek 2018an, aurreko urtean baino % 6 handiagoa. Bi arrazoi daude horretarako, batetik, Udala-ren sarrera nagusia den foru funtsetik 100.000€ gehiago espero direla eta bestetik 2016an sortu zen desoreka bat ordaintzeko aurrekontua igo dela. Joxe Mari Luen-go alkateak argitu digunez "100.000€ pasako desoreka egin zen etxebizitza proiektu bat ez zelako garatu besteak beste, eta hori orekatu behar

izan dugu aurtengo aurrekontuetan. Hori bai, orekatze-ko mailegua beharrean agian Udal bulego zaharren subasta egingo dugu, aztertzen ari gara".

Zorra jaisten

Zorra nabarmen murriztu da. "Urtea 800.000€ ko zorra-ekin amaitzea aurreikusten dugu, beraz mailegu txiki bat eskatuta ere miloi bat euroko zorraren azpitik geundeke. Udalean sartu ginenean zegoen zorraren herena da hori, EH Bildu agintean dagoen urteotan guztietan mailegu bat bera ere ez baitugu eskatu, gastuak ondo begiratu eta Udala bideragarri egiteko helburuarekin. Eta noski, hori sumatzen da aurrekontuetan



ere, zorra ordaintzera gero eta gutxiago bideratzen baitugu, aurtengoetan iaz baino 40.000€ gutxiago bideratuko ditugu zorrera, eta orain urte batzuk bideratzen genuena baino 100.000€ gutxiago".

Aurrekontuaren zati handiena Udal langileak eta zerbitzuen funtzionamendua ordaintzeko izan ohi da, zorraren ordaintzetaz gain. "Langileei %1,5 igo zaie aurtengo soldata eta horrek gastu hori

Aprobados los presupuestos de 2018

Zizurkil dispone de un presupuesto de 3.315.850 € para 2018, un 6% más que el año pasado. El presupuesto fue aprobado sin ningún voto en contra en el pleno del 19 de marzo. El alcalde nos explica los principales rasgos de las cuentas municipales de este

año. Por un lado, remarca la reducción de la deuda. "Pre- vemos terminar este año con una deuda de 800.000€, lo que supone menos de una tercera parte de la deuda que tenía el Ayuntamiento el 2011. Todos estos años no hemos pedido ningún presta-

mo y este esfuerzo empieza a dar sus frutos, ya que estamos recuperando la capacidad inversora. Así, este año destinaremos 40.000€ menos a financiar la deuda que en el anterior ejercicio y 100.000 € menos que los primeros años de nuestro mandato".

Inversiones

La inversión principal será la cubierta de la plaza Joxe Arregi. "El objetivo es que esté terminado para las fiestas de septiembre. La cubierta fue la principal petición de los vecinos y las vecinas cuando diseñamos la plaza y con

zertxobait handitzea ekarri du, gainontzean ez dago arlo horretan aldaketa nabarmenik.

Estalpea

2018ko inbertsio nagusia Joxe Arregi plazako estalpea izango da. "Aurreko urteetan mailegu bidez egingo ote genuen aztertu dugu baina egoerak ez zuen ematen horretarako. Aurtengo inbertsio nagusia izango da eta helburua festetarako eginda egotea da. Hori izan zen bizilagunen eskaera plaza diseinatzean eta honekin amaituko dugu herriko erdigu-neko proiektua. Ura agentziarekin bilerak egiten ari gara, ahozko baimena badugu baina ziurtatu nahi dugu lanean hasi aurretik. Ura agentziaren baimena behar dugu Jaurilaritzak Asteasu Erreka bideratzeko lanak egin arte Elbarrenako zati handi bat, plaza barne *inundable* edo uholde arriskudun jotzen baita. 235.200€ko aurrekontua du estalpeak eta lanek bi hilabete irautea espero da. Amaitzean Elbarrenak behar zuen estalpea

izango du, euri egunetan egoteko eta plazan edozein ekitaldi lasai egiteko".

Bestelakoetan herri bideen konponketa eta futbol zelaiko harmailak aipatu dizki-gu Luengok. "Iaz atzeratu zen Olatzako bideaz gain, aurten lhartza baserritik gorako bide-a konponduko dugu, oso egoera txarrean baitago. Urtero herri bide bat konpon-tzeko konpromisoari eutsiko diogu horrela. Dirulaguntza izaten dugu lan horiek egi-teko". Danena Futbol zelaiko harmailak egiteko 79.000€ aurreikusi dira. "Atzeko bide aldera egingo da harmaila, 55 bat metroko luzerako 3 ilarako harmaila izango da, eta horrela, estalpe bat izango dute bertaratzen di-renek. Gaur egun Zizurkil-en erabilera handiko gunea da zelaia eta aurrera begira bertan beste ekimenak antolatze-ko aukera ere emango digu". Amaitzeko LED argiak sartzen jarraituko du Udalak. "Eraikinetatik Udaletxea falta zitzaigun eta aldatzen ari gara eta auzoei dagokio-nez, gastu handiena duten auzoak ari gara lehenik alda-

Inbertsioak 2018

Plazako estalpea Cubierta plaza	235.200 €
Futbol zelaiko harmailak Gradas campo de fútbol	79.000 €
Herri bideen konponketa Mejora caminos rurales	55.000 €
Ezkaltzu mendiko lanak Trabajos monte Ezkaltzu	26.500 €
Beldarrain eta muñoako argiteria Alumbrado Beldarrain-Muñoa	6.600 €
Bestelako inbertsioak (Udaletxe-ko fatxada, Atxulondoko lanak, materiala...) Otras inversiones (Fachada ayuntamiento, tra-bajos en Atxulondo, material...)	74.080€

tzen, Beldarrain Muñoa ingu-rua esaterako".

Etorkizuna, Bulandegi

Aurten aurreikusitako lan horiek eginda herriko bi pla-zen berritzeak egintzat eman ditu Udalak eta auzoetara begira jarri da. "Udal gober-nu honek badaramatza pare bat urte Bulandegi auzoan egin litekeena aztertzen,

gure ustez hori da hurrengo urteko lehentasuna, baina oso proiektu konplikatu da. Beste alderdiei eskatu diegu inplikatzeko, azkenean Uda-lak ezin baitu bakarrik jar-dun, Aldundiaren errepidea dago tartean, sahiesbidearen proiektua momentuz utzita dutena... denen artean egin behar dugu indar", azaldu du alkateak.

ella culminaremos el proyec-to de reforma del núcleo del municipio. El presupuesto es de 235.200 euros y los traba-jos durarán unos dos meses". Otras inversiones reseñables son la mejora de caminos rurales, con 55.000€ de pre-supuesto y 79.000€ para rea-

lizar las gradas del campo de fútbol. "Serán unas gradas de tres hileras con 55 metros de largo. Hoy en día, la afluencia de público es grande y estas gradas permitirán en el futu-ro la posibilidad de realizar otras actividades en el recin-to". Por último, como en los

anteriores presupuestos, el Ayuntamiento destinará parte del dinero para cambiar el alumbrado del municipio instalando luces LED.

En cuanto al futuro, el alcal-de lo tiene claro: "El próximo proyecto importante para nosotros es la reforma de

Bulandegi, un proyecto muy complejo porque requiere un trabajo inter-institucional con la Diputación, que es quien gestiona la carretera y tiene la responsabilidad en el pro-yecto de la variante, por ello hemos pedido la implicación del resto de partidos".

Garai berria **hastear**

Tello anaiek hartuko dute Atxulondo taberna-jatetxearen gidaritza Udalaren lehiaketan esleipena eskuratu ostean. Zizurkilen bizi den Xabier Telloekin izan da plazaberri.

6

Sukaldari ikasketak egin zenituen gaztetan. Zerk bultzatuta?

Xabier Tello: Ez nuen ikasteko gogo handirik eta ezta mekanika egiteko ere. Beraz Donostiako sukaldaritza eskolan sartu nintzen eta gustatu egin zitzaidan.

Eta gerora hainbat jate-txe ezagutu dituzu, ezta?


X.T.: Lehen esperientzia oso gogorra izan zen Zarauzko malekoian praktikatzen, 12-14 ordu lanean eguneroko eta ordaindu gabe. Gerora ordea gauza askoz hobeto joan da, leku askoz ezagutu ditut sukaldaritzari esker: Alacant, Menorca eta Euskal Herrian Lekeitio, Elgoi-

bar... sukalde asko ezagutu ditut.

Gaur egun ordea, zure ogibidea irakaslea izatea da, Lanbide heziketan...

X.T.: Usurbilgo LHIn (Lanbide hastapena) lanean hasiteko aukera sortu zitzaidan. Urtebeterako hasi nintzen eta 25 daramatzat dagoeneko. Gustatzen zait gazteekin lan egitea. Oinarrizko lanbide heziketa da eta askotan etorkizuna nondik nora bideratu

«Ekainaren hasieran ireki nahiko genuke»



Nueva dirección en el restaurante Atxulondo

Los hermanos Tello, Xabier y Alex, serán los encargados de gestionar el restaurante Atxulondo en los próximos años tras haberse adjudicado el concurso público para su explotación. Plazaberri ha charlado con Xabier Tello, el cocinero andoaindarra que vive

en Zizurkil en los últimos años. "Estudie cocina en la escuela de cocina de Donosti y he conocido muchos lugares con este oficio: Alicante, Menorca y en Euskal Herria, Lekeitio, Elgoibar...", explica Tello. Hoy en día, sin embargo, es profesor. "Llevo 25 años en la es-

cuela de cocina de Usurbil, es una escuela de cocina de base y muchas veces trabajamos con jóvenes que no saben hacia dónde dirigir su futuro. Me gusta esa filosofía de trabajo".

Pasus y cursillos

Aparte de su trabajo como

profesor, Xabier Tello sigue ligado a la hostelería. "Llevo dos años como asesor de cocina en Pasus e imparto cursillos sobre cocina y alimentación, me gusta este mundo". Cuando supieron que salía a concurso la explotación del bar restaurante Atxulondo, deci-

Atxulondo jatetxean

«Garagardotegi ikutua eman nahi diogu jatetxeari eta ostalaritzaz gain, arlo kulturala garatu»

ez dakiten gazteekin egiten dugu lan. Sukaldaritzaren bidez, gazteak aurrera ateratzeko saiakera egiten da eskolan eta filosofia horretan sinesten dut nik. Dena den, geldirik egoten ez dakidanez beste hamaika saltsatan nabili: Pasus tabernan aholkulari gisa bi urte daramatzat, ikastaroak ematen ditut elikaduraren inguruan... Gustatzen zait sukalde mundua.

Zizurkilekin zer lotura duzu?

X.T.: Andoaindarra izan arren, Zizurkilen bizi naiz, Azken Portun. Familiarekin etorri ginen hona, bi alabekin.

“Zortetik onena opa diegu”

Zizurkilgo Udala pozik da Atxulondo jatetxearen kudeaketa berria martxan dela ikusita. “Bazituen bere arriskuak lehiaketak, 35. 500 €ko gutxieneko inbertsio bat eskatzen baitzen 10 urtez jatet-

xea kudeatzearen truke. Modu horretara proiektu serio bat erakarri nahi genuen eta uste dugu lortu dugula”, adierazi du Joxe Mari Luengo alkateak. Udala bidelagun izango dela eta “zortetik onena” opa

die Luengok kudeatzaile berrirei. Inbertsioa egiteaz gain, kontratuz ordutegiak bete eta euskarazko arreta bermatu beharko da, beste baldintza batzuren artean.

Zerk bultzatu zaituzte Atxulondo hartzeko lehiaketan aurkeztera?

X.T.: Gustatu zitzaigun planteamendua, epe luzerako aukera ematen zuen eta proiektu polita sortzeko aukera zegoela pentsatu genuen. Ni eta nire anaia, Alex Tello, animatu ginen aurkeztera. Pasusen izan dudana esperientziak eta nire anaiarekin batera aritzeak animatu nau. Dena den, Pasusen aholkularitza ematen jarraitzeko asmoa dut eta Pasuseko nagusiak ere lagunduko digu guri behar izanez gero.

Zein da zuen egitasmoa?

X.T.: Bi aspektu landu nahi ditugu, ostalaritzakoa edo gastronomikoa eta kulturala. Gure asmoa da jatetxea izatea garagardotegi ikutuarekin, itxura hori izango du. Eta kulturalki ere ahalegina egin nahi dugu. Batetik eraikina dagoen kultur etxea eta jatetxea lotuz, eta bestetik jatetxean bertan ekimenak antolatuz. Anaia Alex aktorea eta antzerkigilea da eta arlo hau lantzeko garrantzitsua da bera proiektuan egotea. Monologoak, bertso afariak, kontzertuak... ditugu buruan, gero ikusi beharko dugu jendeak erantzuten

duen. Era berean sukaldaritza ikastaroak ere bertan landu ditzakegu Udalarekin elkarlanean.

Noizko irekitzea aurreikusten duzue?

X.T.: Gure asmoa ekainaren hasieran irekitzea da. Lan handia daukagu egiteko, kontratuan agertzen den sukaldeko ekipamentu guztia jartzeaz gain, beste zenbait aldaketa ere egin nahi ditugu jangelan esaterako, baina ekainean irekita edukitzea nahiko genuke. Aurreko jatetxeari beste itxura bat eman nahi diogu eta ekainean zizurkildarrei ateak ireki.

dieron dar el paso. “Nos gustó el planteamiento de realizar un proyecto bonito a largo plazo. La experiencia que he tenido en Pasus y el contar con mi hermano para el proyecto han sido fundamentales para dar el paso. Sin embargo, seguiré como asesor en Pasus

y Mauro, el responsable de Pasus, también nos ayudará cuando lo necesitemos”, explica Xabier Tello.

Gastronomía y cultura

El proyecto que tienen los hermanos Tello pretende enlazar gastronomía y cultura.

“Nuestra idea es darle al restaurante un toque de cervecería. No será sólo una cervecería, pero queremos darle ese aspecto. Y en el plano cultural, queremos unir el restaurante con la casa de cultura, ya que está ubicado en el mismo edificio. Mi hermano Alex es

actor y director de teatro y su participación en el proyecto es importante para trabajar este aspecto. Hemos pensado en monólogos, conciertos, bertso-afaris... iremos dándole forma y tendremos que ver la respuesta de la gente”. Prevén abrir a primeros de junio.

Euskararen kale erab 5 puntu behera egin

Martxoaren 14an eta 15ean aurkeztu zituen Galtzaundi Euskara Taldeak 2017an Zizurkilen egingako euskararen kale erabilera-
ren neurketak emandako emaitza gazi-gozoak. %60,5ekoa da euskararen erabilera herriko kaleetan.

Soziolinguistika Klusterrak iaz gure herriko kaleetan egingako entzuketan ondorioak mahai gainean ditugu jada. Ondorioa argia da, azken hamarkadan behera egin du euskararen erabilera Zizurkilen, ordura arteko joera txarrerako irauliz. Guztira, ibilbide, egun zein ordu ezberdinetan 3134 solaskideren arteko 1082 elkarriketa jaso dituzte. Entzunaldi horietatik %60,5 izan da euskaraz. Atzera egin eta 2006ko kale neurketaren emaitzekin alderatuta, %65koa izan zen

orduan indizea, bost puntuz jaitsi da euskararen erabilera Zizurkilen. Galtzaunditik adierazi bezala, kontu handiz egin behar da orduko eta oraingo erabilera datuen konparaketa, metodologia ezberdina erabili baita oraingoan. Lehendabiziko aldiz, goiko herriguneko datuak eta Elbarrenakoak bereizita jaso dira, bi gunetako erabilera jakite aldera.

Datu adierazgarrienak

Biztanleriari dagokionez alde handia badago ere, lagina



Cada vez menos euskera en nuestras calles

Según el estudio realizado en nuestras calles por Soziolinguistika Klusterra, el uso del euskera en las calles de Zizurkil ha disminuido en la última década, tras años de crecimiento. En esta última medición basada en la escucha de 1082 conversaciones,

el uso del euskera es del 60%, 5 puntos menos que en 2006. Por primera vez se han separado los datos de los dos núcleos del municipio.

58,3 % en Elbarrena

En Elbarrena se ha registrado la información de 536 entrevistas,

de las cuales más de la mitad, un 58% han sido en euskera. Es de reseñar que este estudio ha reflejado una foto muy real, especialmente, en Zizurkil Goia, ya que con una población muy inferior, se ha recogido la información de otras 500 entrevistas, con un uso del euskera del 72,7%.

El uso por edades nos deja una radiografía interesante del municipio. Los niños y niñas son los que más euskera usan en Elbarrena. Un 82,9% cuando hablan entre ellos y un 71% cuando hablan con una persona adulta. El estudio concluye que los niños y niñas en

Erabilerak Zizurkilen



«Herri euskaldunak ez dira jada hain euskaldunak»

antzekoa da. 546 elkarrizketa herrigunean eta 536 Elbarrenan. Horrek esan nahi du Zizurkil goiko argazkia oso erreala dela, populazio askoz txikiagoa duela kontuan hartuta. Behatutakoaren arabera, goian euskararen erabilera %72,7koa da, behean berriz %58,3koa. Gazteleraz jasotako elkarrizketak %27,1 izan dira goian eta %38,5 behean. Beste hizkuntzaren presentziarik ez da jaso lehenengo kasuan, bigarrenean aldiz %3,2 izan dira.

Adinaren araberako azterketa ere eskaini du klusterrak, eta hausnarketarako datuak utzi dizkigu gainera:

Haurren euskara erabilera-tik hasita, herrigunean %79,3

da erabilera; Elbarrenan aldiz, %71koa. Hemen haurrek adin ezberdinetako pertsonekin izandako elkarrizketak jasotzen dira. Baina haurren arteko elkarrizketei soilik begiratuta, euskaraz gehiago

jaso dira behean goian baino. Alegia, aurreiritziek agintzen duenaren kontra, haurren artean gehiago hitz egiten da euskaraz beheko auzoan: Elbarrenan %82,9, Goiko herri-gunean %75,5.

Abenduko euskaraldiari begira, Maiatza Saltsan-en euskara ardatz

Euskararen erabileran eragiteko asmoz, Topaguneak bultzatuta, aurtengo azaro amaiera eta abendu hasieran *11 egun euskaraz* egingo dira. *Euskaraldia* deitu zaio ekimen horri eta Zizurkilek bertan parte hartzeko konpromisoa hartu du. Dagoeneko kultura eta euskara batzordean, herriko eragile eta herritar ugari biltzen dira lanketa egiteko asmoz. Helburua, esparru ezberdinetan euskararen erabilera handitzea da Aho bizi, belarri prest eta bihotz bero

rolen bidez. Urte amaierako 11 egun horietatik haratago, urte osoko lanketa da prestatzen ari direna. Dagoeneko hasi dira komertzioekin lehenengo proposamenak aztertzen. Baita herriko Danena kirol elkartearekin ere. Irailetik aurrera Eusle tailerra egingo dute bertako entrenatzaileek.

Azkenik, aurtengo Maiatza Saltsanen ardatza izango da euskara. Programazio osatua prestatzen ari dira, euskararen aldeko kontzientzia zabaltzeko helburuarekin.

Elbarrena hablan más euskera entre ellos que los de Zizurkil Goia. Entre los jóvenes, el dato es más preocupante en Elbarrena, ya que el uso del euskera apenas llega a la mitad, mientras que en Zizurkil Goia es del 93,5 %, el más alto de toda la comarca.


Como es habitual en estas encuestas, cuanto más edad tenga el hablante menos se emplea el euskera. Los adultos hablan más en castellano que en euskera en Elbarrena, con un 48,3%. En cuanto a los mayores de 65 años, el uso es del 55,6%.

Euskaraldia

Estos datos siguen la tendencia de todos los municipios que han sido mayoritariamente euskaldunes. Precisamente, con el objetivo de reflexionar sobre nuestras costumbres lingüísticas e impulsar el uso del euskera, a finales de año

se celebrará el Euskaraldia. Zizurkil ya está trabajando en ello en la comisión de cultura y euskera, abierta a todos y todas, donde se han reunido diferentes entidades y vecinos y vecinas. En mayo empezaremos a calentar motores con Maiatza Saltsan.

Zizurkilgo kale erabilera neurketa (2017)



Goian, datu gozoenak gazteek eman dizkigute: %93koa da gazteen erabilera herri-gunean, adin tarte horretan eskualde osoko erabilerarik altuena hain zuzen ere; Elbarrenan bestelakoa da egoera, %56,2koa da gazteek euskaraz egiten dutena. Aurrekoan datuak auzoka banatuta eman ez baziren ere, kezkatzekoa da beheko auzoko gazteen euskara erabilerak izan duen jaitsiera.

Helduen taldean, %64ak egiten du euskaraz goian

«Euskararen egoeraren alarma herri txikietan ere piztu behar da»

eta erdiak baino gutxiagok, %48,3ak behean.

Azkenik, 65 urtetik aurrerakoan erabilera indizea, %59,5 eta %55,6koa da hurrenez hurren.

Etxean euskara, behera

Orain artean azaldutako datuak behaketa zuzenaren bidez lortutakoak dira. Baina aldi berean badira zeharka, galdeketa bidez jasotakoak ere. 2011ean jaso ziren euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko datu aitortuak. Datuon arabera, euskararen ezagutza %76koa zen orduan Zizurkilen. Etxeko erabilera aitortuari dagokionez ere joera beretsua da: 2011an, Zizurkilen %41,9 erabiltzen zuen

euskara etxeko hizkuntza bezala. 1991.urtean baino %5,7 gutxiago.


Arnasguneak arriskuan

Zizurkilen ematen den ezagutza eta erabilera datuen beheranzko joera ez da kasu isolatua. Tolosaldeko mapa aztertzen badugu, kezkatzeko moduko ondorioez ohartuko gara: Izan ere, arnasgune kontsideratzen ditugun herri txikietan beherantzko joera nabarmena da: Eskualdeko 8 herritan euskararen etxeko erabilerak 20 puntuko jaitsiera izan du; beste 15 herritan, jaitsiera 10-20 puntu artekoa izan da; Zizurkil, Ibarra, Amas-Villabona, eta Anoetarekin batera 1-10 punturen arteko jaitsiera izan dutenen multzoan dago. Igoera xume bat izan duen bakarra Tolosa da.

Galtzaundi Euskara Elkarteko kideek aurkezpenean ohartarazi zuten bezala "herri euskaldunak ez dira jada hain euskaldunak". Arnasgune kontsideratzen diren herri horietan, euskara salbatutzat eman da eta horrela eman da beherakada. Helburua, herri txikietako joera geratu eta herri handietakoa mantentzea da, euskararen egoeraren alarma piztuz eta gaia herri txikietako agendan sartuz.

Klusterak emandako datuak erreparatuta eta ezagutza aitortua kontutan hartuta, Zizurkilen euskaraz bizi ahal dugu. Gure esku dago hala izatea.

Zizurkilgo kale erabilera neurketa (2017)



Haurren artean izandako elkarrizketak, nagusien artekoak eta heldu eta haurren artekoak neurtu dira, bestek beste.

ARGAZKI BILDUMA

Azken asteak argazkitan

Otsailaren azken eguneko elurtetik hasita, zenbati ekimen bildu ditugu argazkitan.



Otsailaren 28 goizean zuriz esnatu zen Zizurkil.



Blues gauak alaitu zituen bazterrak otsailaren 24an, irudian, Shirley Davis.

11



Martxoaren 8an zizurkildar emakumeak Villabonara joan ziren lehen greba feministan.



Martxoaren 18an, bertso pilotan aritu ziren eskualdeko bertsolari eta pilotariak.



Martxoaren 10an Txapel Eguna ospatu zen Xabier Pellejero omenduz, tartean Bukalai dantza taldearen emanaldia.



MAIDER SIERRA



“Minbizia desagertzea baino, kronifikatzea da uneotako erronka”

Maider Sierra zizurkildarrak hamarkada bat darama Gipuzkoako minbiziaren aurkako elkarte lanean. Plazaberriren galderei erantzun die baikortasun mezua zabaltzeko nahian.



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak,
Ernio Bidea 9A, behean,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.

**Zenbat urte daramatza-
zu minbiziaren aurkako
elkartean? Zein da zeha-
zki zure lana?**

Aurtengo maiatzean, 10 urte beteko ditut bertan. Gipuzkoako Minbiziaren Aurkako Elkartearen prebentzio arloko arduraduna naiz. Askotan esan dudana bezala, gure lana ikerketek diotena kaleratzea da. 10 minbizietatik 7 saihestu daitekeela diote, gure bizi ohiturekin harreman zuzena dutelako. Beraz, osasun hezkuntzako programak, sensibilizazio kanpainak, tailerrak, ikastaroak, terapiak... burutzen ditut adin eta egoera ezberdinetara iritsi nahirik eta gipuzkoarre beraiei osasunaren arduradun egin daitezela animatuz. Noski, guzti hau ez dut nik bakarrik egiten, elkartearen beste kideak eta, bereziki, bolondresen laguntzarekin.

**Hitz gutxitan azalduigu-
zu elkartearen jarduna-
ren funtsa...**

Osasun hezkuntzan hezi, gaixo eta familiakoei laguntza psikologiko, ekonomiko eta soziala eskaini

eta ikerketa sustatzea dira elkartearen helburuak.

Zuen elkartearen garrantzitsua da bolondresen lana, ezta? Zer da euren zeregina?

Lehen aipatu bezala, bolondresak dira Elkartearen oinarria. Zeregin ezberdina burutzen dituzte:

- 1.- Batzordekideak: Zuzendaritza postuak betetzen dituzte.
- 2.- Baliabideak lortu: diru eskeak, ekintza solidarioak...
- 3.- Prebentzio ekintzak: Sensibilizazio kanpainak.
- 4.- Gaixoei laguntza: Tratamenduetara joateko laguntza, etxean edo ospitalean laguntza...

Modu oso ezberdinetan parte hartzen dute elkartearen. Bakoitzak bere nahi eta beharren arabera denbora gehiago edo gutxiago eskainiz.

**“Medikuak esan dit Minbizi-
dudala”. Zer egin?
Nora jo?**

Batzuetan, ezer ez...

Egoera honek bizitza denboraldi batean aldatuko dizula kontuan izatea garrantzitsua da. Profesionalen eskuetan jartzea garrantzitsua da. Osasun zerbitzu oso onak ditugu. Eta bertan eskaintzen dena nahiko ez bada, minbiziaren aurkako elkartera zuzentzea gomendatuko nuke. Zerbitzuak doakoak direla gogorarazteko aprobetxatu nahiko nuke.

Azken urteetan aldaketarik izan al da gaitzaren eraginean? Ba al ditugu baikor egoteko arrazoiak?

Noski baietz, ikerketak gaixotasun hau ulertu, aurkeztu, eta tratamenduak hobetu eta zeharkako ondorioak gutxitzea ekarri du. Orain etorkizuna gaixotasunari izen abizenak jartzea lortzea da. Horrela, tratamenduak zehatzagoak eta eraginkorragoak dira. Minbizi desagertzea baino kronifikatzea da orain erronka.

Asko entzuten diren baieztapen hauei erantzutea...

Erretzeari utziko nioke baina ezin dut....

Aukera emaitza zure buruari. Batzuetan, gure pentsamenduek mugatzen gaituzte. Eta bakarrik ezin duzula uste baduzu, laguntzeko prest gauden profesional batengana gerturatu.

Ez dut denborarik sukaldari aritzeko eta elikaduraz zaintzeko... Elikadura zaintzea, denboraz haratago doa. Ideia polit eta erraz batzu izatea besterik ez da behar horretarako.

Ariketa fisikoak nagia ematen dit...

Bizitza aktiboa izatea da oinarria, ez ariketa fisikoak egitea.

Esaiguz...

Zizurkilgo txoko kuttun bat: Abeletxerako bidea.

Pertsonaia bat: Pedro Maria Otaño.

Zer dago faltan? Kalleko egoteko aterpe bat.

Zer soberan? Hondakinak lekuz kanpo.